

1. Enpresa kontzeptua

1.1. SARRERA

Ezaguna denez, enpresaren errealitatea konplexua da oso. Enpresan, besteak beste, arazo teknologikoak, soziologikoak, psikologikoak, etikoak, ekonomikoak eta beste hainbat motatakoak sortzen dira.

Halatan, egungo enpresa ezin azter daiteke ikuspegi edo dimentsio bakar batetik. Enpresa kontzeptua diziplina anitzekoa da, alegia, ezagutza-esparru desberdinetatik aztertu beharrekoa. Dena den, oraindik ere diziplina anitzeko ikuspegia ez dago oso barneratua mundu akademikoan. Oraindik ere, errealitatearen azterketari ekiteko ezagutza-alorrek argi eta garbi bereizten dira, zenbait arrazoi direla bide. Eta horregatik izaten dira enpresaren horrenbeste ikuspegi, kontzepzio edo definizio, guztiak ere ekonomiaren eta gizartearen oinarritzko erakunde honen errealitate poliedrikoaren aurpegi bati erreparatuz egituratzen eta garatzen direnak.

Argi eduki beharra dugu, hasieratik, ikuspegi eta definizio horiek guztiak osagarriak direla. Enpresa jakintza-esparru batetik aztertzen edo definitzen badugu soilik —filosofia, politika, zuzenbidea, antolaketa, psikologia zein soziologiatik, kasu—, nekez lortuko da enpresaren definizioa. Diziplina anitzeko ikuspegi integratu batetik soilik ulertuko dugu enpresa erakundearen benetako garrantzia. Hortaz, nekez eman daiteke enpresaren definizio onik, baldin eta definizio hori jakintza-esparru bakar batetik egiten bada.

Enpresaren dimentsio guztiak kontuan izanik, ezaugarri nagusi hauek aipa daitezke (Bueno, 1996):

1. Enpresa antolakuntza edo organizazio bat da. Enpresak barne-egitura jakin bat du, hierarkia jakin bat, irabaziak edo mozkinak lortzea helburu duena.
2. Enpresa ekoizpen-banakoa da. Enpresak faktore ekonomiko jakin batzuk konbinatzen ditu eta eraldaketa-prozesu baten bidez produktuak edo zerbitzuak lortzen ditu.
3. Enpresa banako finantzario bat da. Enpresak kapital jakin bat izaten du eta kapital hori inbertitu egiten da.
4. Enpresa helburu jakin batzuk dituen erabaki- eta zuzendaritza-banako bat da.
5. Enpresa sistema sozial bat da. Gizaki-talde batek osatzen du enpresa; haien artean harreman formalak eta ez-formalak izaten dituzten gizakiak.

Edonola ere, eta definizio erabilgarriak izateko premian, enpresaren ekonomia eta antolaketaren ohiko definizioa jaso dezakegu hemen. Horren arabera, enpresa jarduera ekonomikoaren zentroa da, ingurune sozial eta juridiko batean txertatua, arduradun baten edo gehiagoren zuzendaritzapean eta kontrolpean dagoena, eta gizakien premiak zuzenean edo zeharka asetzeko ondasun eta zerbitzuak lortzeko helburua duena (Pérez Gorostegui, 1995; Bueno, 1996; Rivera eta Zabala, 1996).

Enpresa orok bere xede edo helburuak ditu, eta enpresa osatzen duten faktore guztiek xede edo helburu horiek lortzeko koordinaturik egon behar dute beti. Koordinazio hori izan ezean, enpresarik ez legoke; elkarren artean inolako loturarik gabeko elementu-multzoa baino ez litzateke izango eta ezinezkoa litzateke ezarritako helburuak lortzea (Rivera eta Zabala, 1996).

Asko idatzi izan da enpresaren xede edo helburuei buruz. Argi dago, merkatu-ekonomia batean bereziki, enpresaren helburu nagusia ekonomikoa dela, alegia, dagokion funtzio ekonomikoa eraginkortasunez betetzea. Sarritan esaten den legez: irabaziak maximotzea.

Zenbait egile, ordea, ez datoz bat enpresaren helburuei buruzko definizio hertsirikin. Autore horiek diote enpresaren helburu edo xedea ez dela irabaziak maximotzea, hau da, funtzio ekonomikoa eraginkortasunez betetzea. Hori helburua baino gehiago betebeharrak dela diote, enpresak aurrera egin dezan nahitaez bete beharreko baldintza, hain zuzen ere (langilearentzat enplegu batean soldata jasotzea helburua baino derrigorrezko betebeharrak izan daitezkeen gisa bertsuan).

Helburuei dagokienez, Cuervo irakasleak aipatzen duen legez (Cuervo *et al*, 1994), teoria ekonomiko neoklasikoak dio enpresaren helburuak enpresaburu edo enpresariaren helburuak direla, bere irabaziak maximotzea; halatan, irabazien maximotzea helburu soil eta sinple gisa jasotzen da. Alabaina, irabazien maximotzearen kontzeptua ez da, inondik ere, hain sinplea eta erraza: irabaziaren kontzeptua bera ere erlatiboa eta zehaztasunik gabekoa da (kontabilitatean ikusten denez, irabaziaren zehaztea ez da inolaz ere *zientzia* bat, balorazio-irizpideek esanahi handia dute); bestalde, maximotzea nozioa bera ere oso da konplexua, batik bat analisi horretan irabaziak lortzeko enpresaren jarduerak bizi izaten dituen arriskuak kontuan izaten baditugu.

Enpresaren zuzendaritza da, gainera, helburu hori erdiesteko enpresa gidatzen duena, eta helburuen gatazka izan daiteke hor. Akziodunek irabazien maximotzeaz zer ulertzen duten, eta zer ulertzen duten zuzendariak, besteak beste. Zuzendarientzat baliteke, apika, irabaziak maximotzea ez izatea helburu bakarra, ezta helburu izatea ere. Talde bakoitzak bere interesak ditu, eta interes horiek mugatuko dituzte bakoitzaren helburuak, azken batean. Hala, Williamson-ek jaso izan duen legez, zuzendariaren *utilitate* funtzioak baditu osagai monetarioak eta ez-monetarioak; esaterako, sustapena, autonomia, entzutea, baliabideak esleitzeko askatasuna, eta, nola ez, zuzendaritzan jarraitu ahal izateko segurtasuna (García Mestanza, 2003). Horiengatik guztiengatik garatu izan dira zuzendariari ordaintzeko sistemak enpresak lortzen dituen irabazien arabekoak (baita enpresak balioa handitu/ez handitu aukeraren arabera ordaintzekoak ere; *stock-options* izenekoak, kasu).

Gainera, merkatu-ekonomia batean txertaturiko erakundea dela kontuan izanik, enpresak baditu, edo izan beharko litzuke behintzat, ekonomikoaz gain bestelako muga batzuk; izan ere, esparru publikoan aritzen den erakundea izanik, legitimazio publikoa

behar duen erakundea baita (auzi honi buruzko gogoeta enpresaren gizarte-erantzukizunari buruzko gaian egingo dugu).

Bestetik, eta aurrerago ere sakonean aztertuko denez, oso ohikoa da enpresa, antolaketa modura, betetzen dituen funtzio jakin batzuen arabera definitzea. Erabiliko dugun sailkapenaren arabera, honako funtzio *unibertsal* hauek bereziko ditugu: zuzendaritza- eta antolakuntza-funtzioa, finantza-funtzioa, merkaturatze- edo marketin-funtzioa, ekoizpen-funtzioa eta giza baliabideen funtzioa.

Era berean, enpresa *sistema* gisa ere azter daiteke. Enpresa sistema bat dela esaten da zenbait helburu lortzen ahalegintzen den elementu- edo azpisisistema-multzoa baita (elkarrekin artean edo sistema globalarekin erlazionaturik dauden elementuak, gainera). Puntu horri sakonago ekingo diogu aurrerago atal honetan bertan.

1.2. ENPRESA-EKONOMIA ETA ENPRESEN ANTOLAKETA

Ekonomia eta enpresa-zientziak, oro har, bi atal nagusitan bereizten dira: ekonomiaren zientziak eta enpresa-zuzendaritza eta administrazioaren zientziak. Beste hitz batzuetan: ekonomia orokorra eta enpresa-ekonomia. Sailkapen hori nahiko nabarmena eta hedatua da. Esaterako, munduko herrialde gehienetan ekonomiari eta enpresari buruzko ikasketak banaketa horren arabera antolatzen dira.

Ekonomia orokorraren baitan, era berean, makroekonomia eta mikroekonomia eta ekonomia politikoa bereizten dira, besteak beste. Enpresa-ekonomiari buruzko ezagutza arloan, ordea, sailkapena ez da horren erraza, hainbat interpretazio izan baita tipologia osatzeko (kontuan izan beharra dago, gainera, aurreko puntuan azaldutakoa, alegia, enpresa jakintza-esparru desberdinen azterketaren helburua dela).

Halatan, honako hiru termino hauek izan dira erabilienak jakintza-esparru honetan: enpresa-ekonomia, enpresa-administrazioa eta enpresa-antolakuntza. Hirurak elkarren sinonimotzat hartzea ez litzateke gehiegizko sinplifikazioa gurea bezalako sarrera-testu baterako. Dena den, zenbait ñabardura egitea ere interesgarria izan daiteke.

Enpresa-ekonomia terminoa, anglosaxoiek *business administration* deiturikoaren itzulpena da (“negozioen administrazioa”, hitzez hitz). *Enpresa-antolakuntza*, berriz, ingelesezko *management* terminoaren ohizko itzulpena litzateke. Lehen aipatu dugunez, zentzu zabalean ulertuta, sinonimoak lirateke nolabait, nahiz eta zenbait egilerentzat, zentzu hertsian ulerturik, enpresa-ekonomiaren atal bati dagokion jakintza-esparrua den enpresa-antolakuntza edo administrazioa (finantzak, marketina edo giza baliabideak beste esparru batzuk diren bezalaxe); hain zuzen ere, enpresaren zuzendaritzaz eta antolaketaz bereziki arduratzen den esparrua (eskuliburu honen 3. atalean aztertuko duguna, hain zuzen ere).

1.3. ENPRESA SISTEMA GISA

Enpresa sistema bat dela esa ohi da; izan ere, elkarrekin eta osotasunarekin erlazionatutako elementu zehatz batzuen multzoa baita, helburu jakinak dituena. Enpresa sistemaren egituratzea hainbat ereduren arabera irudika daiteke, hemen Aguirre, Castillo eta Tous irakasleek jasotakoari jarraituko diogu (Aguirre, Castillo eta Tous, 1999). Hortaz, Sistemen teoria oinarri duen ikuspegiaren arabera, enpresa askotariko elementuez osaturik dago eta


horiek elkarri eragiten diote enpresaren helburuak lortzeko (alegia, garrantzia handiko *feedback* efektuak azalduko zaizkigu elementu horien artean).

Sistemen teoriak enpresa sistema ireki gisa azaltzen du. Labur esanda, enpresak ingurunetik input edo sarrera batzuk jasotzen ditu (lehengaiak, finantza-baliabideak, informazioa eta gizakiak, besteak beste) eta *output* edo era askotariko irteerak ateratzen ditu (produktu edo zerbitzuak, kutsadura, salmentak eta publikizitatea, besteak beste).

Beraz, enpresa sistema konplexu gisa irudika dezakegu, koordinazio-lan zehatza beharrezko duena. Era berean, sistema horrek beste azpisistema batzuk izango lituzke bere baitan.

Enpresaren sistema orokorrak oinarrizko bi zirkulazio-maila izango lituzke: batetik, maila operatiboan *eragiketa-* edo *operazio-sistema* legoke, non oinarrizko faktore ekonomikoek parte hartzen duten —lurra edo faktore fisikoak, lana edo giza faktoreak eta kapitala—; eta bestetik, *erabaki-* edo *aginte-sistema* aurreko sistema biltzen duena eta, finean, nolabaiteko laugarren ekoizpen-faktorea dena, erabaki- eta antolaketa-faktorea, hain zuzen. Eragiketa-sistema, era berean, beste hiru azpisistemetan bana daiteke: sistema fisikoa, finantza-sistema eta giza sistema (ikus 1.1. irudia).

1.1. irudia. Enpresa sistema gisa



Iturria: Aguirre, Castillo eta Tous, 1999.

Beraz, sistema orokorraren baitan bada enpresaren buruzagitzari edo zuzendaritzari dagokion azpisistema bat, zuzendaritza- edo management-azpisistema, hain zuzen ere.

1.4. ENPRESARIA

Betidanik, enpresaburua edo enpresaria enpresa-jardueraren sustatzailearekin identifikatu izan da. Enpresariak enpresaren jarduera egituratzen du, eta bere motibazioen arabera, enpresaren helburuak zedarritzen ditu, baita helburu horiek lortu ahal izateko erabakiak hartu ere.

Tradizionalki enpresaren jabea eta enpresaria identifikatu izan dira: alegia, negozioa martxan jartzeko edo mantentzeko kapital-ekarpena egin duena izan da enpresaria. Hala ere, gaur egungo ekonomian ez dirudi hori denik enpresariaren ezaugarri behinena, alegia, negozio batean kapitalista izatea. Egun, enpresaria gehiago litzateke, besterik gabe, enpresa zuzentzen duen profesionala.

Ez da hau enpresariaren irudiaren garapena sakonean aztertzeko lekua, noski. Pentsamendu ekonomikoan betidanik aztertu izan den auzia da enpresariarena. Egile handiak aritu dira gaia aztertzen: Adam Smith, David Ricardo, John Stuart Mill, Karl Marx, Alfred Marshall, Joseph Alois Schumpeter eta John Kenneth Galbraith, besteak beste. Kapitalismoarekin batera izugarri aldatzen hasi ziren enpresaren eta enpresariaren irudia. Horrenbestez, enpresariaren irudiari buruz aurki dezakegun ikuspegi-sorta zabala da oso, beti ere bere testuinguruan aztertu beharko genukeena, gainera. Dena den, labor antzean bada ere interesgarria da oso enpresariaren irudiak izan duen bilakaerari begirada bat eskaintzea (horretarako, batik bat, Aguirre, 2002 eta Pérez Gorostegui, 1995 izango ditugu gidari).

Historikoki, zenbait egileren iritziz ezin daiteke enpresariak hitz egin harik eta espiritu kapitalista garatzen den arte. Enpresariaren irudiaren aitzindaria litzateke kapitalismoa garatu aurreko merkataria edo artisaua (Aguirre, 2002). Aldaketa handia gertatu zen, ordea, Industria Iraultzarekin. Eta ez soilik teknologia aldetik, baita pentsamolde aldetik ere. Sombart-en ustez, espiritu kapitalista espiritu burgesaren eta enpresa-espirituaren nahasketa da. Egile horren iritziz, espiritu burgesaren ezaugarriak hauek lirateke: efizientzia ekonomikoa edo ekonomiaren administraziorako arrazionalitatea aplikatzea, negozioetarako morala edo formalitatea nagusi izatea eta pentsamolde kalkulatuzailea. Enpresa espirituaren ezaugarriak, berriz, irabazia eta dirua irabazteko grina lirateke.

Esan bezala XVIII. eta XIX. mendeetan Industria Iraultzarekin espiritu kapitalista eta enpresariaren irudia biziki indartzen dira. Garaiko gizartearen pentsamoldean ere aldaketa bortitza suertatzen da. Polanyi-k, Keynes-ek eta beste gizarte-zientzialari handi askok ederki asko azaldu duten legez, hautespen naturalari buruzko ideia darwinistak gizarteari aplikatu zitzaizkion, nolabait, eta merkatu-pentsamoldea biziki indartu zen. Horren arabera, indartsuak eta aberatsak arto egon zitezkeen haien ondasunez eta aberastasunez, eta pobreak, berriz, haien pobreziaaren errudun. Ordura arte bestelako pentsamoldea zen nagusi.

Pérez Gorostegui irakasleak dioen legez, enpresariaren irudia hobeto ulertzen lagundu zuten hiru egile nagusiak, Richard Cantillon, Juan Bautista Say eta Alfred Marshall izan ziren (Pérez Gorostegui, 1995). Lehenengoak, ordainsari ezagunak ziurtasunez jasotzen dituztenak eta ordainsari ez-ziurrak jasotzen dituztenak bereizi zituen. Azken horiek dira enpresariak; produkzio-prozesuak egin ahal izateko beharrezko arriskua bereganatzen dutenak. Say ekonomistak —Say-ren lege ospetsua enuntziatu zuenak, hain zuzen—, nahiz eta Adam Smith-en jarraitzailea izan, enpresariak jarritako kapitalaren interesaren eta enpresaren mozkinaren arteko desberdintasuna aipatu zuen. Gainera, enpresariak, kapitalistak ez dituen beste funtzio batzuk dituela uste zuen; faktore guztien lotzaile gisa definitu zuen, ekoizpenaren balioarekin faktore horiek ordaindu eta mozkina lortzen duena. Marshall-ek enpresaren zuzendaritza-faktoreari produkzio-faktorearen eginkizuna esleitu eta orduan jaiotzen ari ziren enpresa handi batzuen sorkuntzan garrantzi berezia eman zion (Pérez Gorostegui, 1995).

Beste bi ikuspegi oso garrantzitsu Joseph A. Schumpeter-en *Enpresari berritzailearen teoria* eta Frank H. Knight-en *Enpresari-arriskuaren teoria* dira. Schumpeter-en ustez enpresariaren funtzio nagusia berritzea da, berrikuntzak ezartzea. Hau da, berrikuntza teknologikoa merkataritzan eta industrian erabiltzeko aplikatzea. Negozio-aukera berri bat atzematea. Berritatzean (produktu berria merkataturatuz, adibidez), enpresariak denboraldi batez, enpresari ohiz kanpoko mozkinak lortzea ahalbidetzen dion monopolioa lortzen du.

Denborarekin, beste enpresari batzuek enpresari berriztatzailearen produktuekin lehiatuko diren pareko produktuak merkaturatuko dituzte, eta horren ondorioz enpresaren ohiz kanpoko mozkinak murriztu egingo dira, harik eta imitatzaile berri gehiago erakarriko ez dituen mailan kokatzen diren arte.

Knigh-en ustez, berriz, bestelakoa da enpresariaren eginkizun nagusia: arriskua bereganatzea. Enpresariak enpresa-jardueraren emaitza ekonomikoak ziur ezagutu aurretik, faktoreen ordainketa aurreratu egiten du. Gainerako faktoreek aurrez ezagutzen dute ordain-sariaren zenbatekoa. Enpresariarena hondar-errenta da; enpresaren jardueren zalantza beragatik aurrez ziur ezagutu ezin daitekeen zenbatekoa, alegia (Pérez Gorostegui, 1995).

Horrenbestez, Schumpeter-en aburuz, enpresariaren mozkina, egiten duen berriztatze-lanak justifikatzen du. Knigh-en arabera, berriz, bereganatzen duen arriskuaren ordain gisa ulertu behar da. Dena den, “enpresariaren mozkina” bezalako terminoak erabiltzeak, kapitalista eta enpresaria oraindik ere nahastu egiten direla egiaztatzen du Gorostegui-ren aburuz, mozkina ez baita enpresariarena; enpresaren jabearena baizik.

Hori bai, kontuan izan beharra dago enpresariak, enpresaren kapitalista edo akziodun ere badenean, mozkin osoa edo horren zati bat (sozietate anonimoa izanez gero, dibidenduak izango lirateke) jaso dezakeela, baina ez enpresaria delako; enpresaren jabea edo bazkidea delako baizik.

Egun enpresariak enpresa-jarduera planifikatu, antolatu, zuzendu eta kontrolatu egiten du; hau da, enpresa-antolamendua helburuetarantz eramateko faktoreak koordinatzen dituena da enpresaria (Pérez Gorostegui, 1995). Are gehiago, gaur egun funtzio hori enpresa ertain eta handietan pertsona-talde batek, eta ez bakarrik, betetzen duenez, enpresariaren irudiaren *despertsonalizazio* eta *atomizazioa* nagusi dela aipatzen dute zenbait autorek (Pérez Gorostegui, 1995; Bueno, 1996; Díaz de Castro, 2002).

Halatan, interesgarria litzateke aipatzea John Kenneth Galbraith estatubatuar ekonomista *heterodoxo* handiaren ekarpena, labur bada ere —ekonomista horrek *The new industrial state* (1967) liburuan jaso zuen bere ikuspegia—. Galbraith-ek “teknogitura” kontzeptua aipatzen du enpresari kontzeptuari buruzko gogoetetan. Autore horren arabera, herrialde garatuetan sortutako tamaina handiko enpresak ezin ditu pertsona bakar batek zuzendu: teknikari profesionalen multzo handi bat behar da enpresa horien zuzendaritzaz arduratzeko, hala nola ekonomistak, ingeniariak, abokatuak edo *politikariak*. Horiek guztiek enpresen “teknogitura” osatzen dute. Autore horren ustez, enpresa handietan, akziodunek ez dute inolako botererik eta benetan indarra eta agintea dituztenak zuzendari eta teknogiturakoak dira. Galbraith-ek hau azpimarratu nahi du azken batean: enpresaren jabetzaren eta zuzendaritzaren artean gertatutako banaketa. Garai batean kointzidentzia handia bazen ere, garai batetik aurrera elkarte anonimo handietan banaketa nabarmena da.

Eta Galbraith-en ideiek badute izan ere gaurkotasunik. Sozietate anonimoen hazkundea, bereziki kapital hazkunde hori burtsara ateratako kapital hedapenaren bidez egiten denean, akzionista txikien kopuru handia enpresaren jabe bihurtzea ekarri du. Halatan, bereizketa handia gertatzen da enpresaren zuzendaritzaren eta jabetzaren artean. Enpresa kapitalista batean lau oinarritzko eskubide bereizten dira: soberakin edo irabazietan partaidetza, enpresan berrinbertitzen diren baliabideen kontrola, input-ekin izaten diren kontratu guztien parte zentral komuna izatea eta gainerako eskubide guztiak saltzeko eskubidea

(Cuervo, 1994). Akzionista txikiek irabazietan partaidetza izatea dute benetako eskubide; besteak, ordea, ez daude horren argi.

Azken batean enpresaren jabetza, teorian behintzat, akziodunena da, baina errealitatean enpresaren zuzendariak edota akzionista-talde txiki batek izaten dute *de facto* jabetza. Egoera horrek ajentzia-arazo tipikoa sortzen du; izan ere, zuzendariak akziodunen izenean kudeatzen baitute enpresa informazioaren asimetria-baldintzetan. Akziodunek ez dute informazio nahikorik zuzendarien jokabidea ebaluatzeko, eta gainera, akzionista bakoitzak enpresan duen kapitala oso txikia denez, inork ez du motibazio nahikorik enpresaren martxa edota enpresaren kudeaketa hobetzeko (Cuervo, 1994).

1.5. ENPRESAREN SORKUNTZA

1.5.1. Sarrera

Enpresa bat sortzerakoan hainbat puntu izan behar dira kontuan. Hauek dira nagusiak:

- Negoziorearen *bideragarritasuna* aztertzea. Besteak beste, bezero potentzialak, arerioak, beharrezko ondarea, ondarearen finantziakzioa, aurreikus daitezkeen gastuak eta mozkinen proiektzioa aztertzea.
- Jarduera berria fisikoki non kokatuko den erabakitzea.
- Enpresa sortzeko beharrezkoak diren tramite legalak egitea.

Lehenengo puntua da, zalantza-izpirik gabe, aztertzen zailena. Horregatik taxuz aztertu behar den zerbait da, enpresa-plana edo bideragarritasun-plangintza izeneko eredu ezagunei jarraituz.

1.5.2. Enpresaren kokagune geografikoa

Enpresa guztiak egoitza soziala dute. Gune hori da, lege aldetik, enpresaren egoitza, nahiz eta enpresaren ustiakuntza-jardueraren gunea edo lan-zentroa, beste leku batean izan. Gainera, enpresa batek lan-zentro bat edo gehiago izan ditzake hiri berean edo herrialde bateko hiri desberdinetan edo herrialde desberdinetako hainbat hiritan.

Egoitza soziala eta lan-zentroa non kokatu erabakitzeke hainbat faktore hartu behar dira kontuan, besteak beste:

- **Faktore ekonomikoak:** merkatu potentziala erakargarria izatea (bezero asko erosketa-ahalmen handiarekin, lehiakide gutxi, prezio garaien aurreikuspena, etabar). Baliabideak merke izatea (lursailak, eraikuntzak, lehengaiak, errekin, eskulana, kapitala, zergak, etabar).
- **Faktore teknikoak:** beharrezko industria *auxiliarra* izatea, eskulan kualifikatua izatea inguruan, azpikontratista fidagarriak edota garraio- eta komunikabide-azpiegitura egokiak izatea.
- **Faktore legalak:** ingurumenaren araudia, zergen araudia, gizarte-segurantzaren araudia, inportatzeko oztupoak, etabar.

- **Faktore soziopolitikoak:** giro politikoa, erakundeen egonkortasuna, kohesio soziala, gatazkak konpontzeko gaitasuna, etabar.

Faktore horiek enpresak izan ditzakeen aukerak finkatzen dituzte: leku batean edo bestean kokatzearen aldeko eta aurkako faktoreak. Faktore horiek guztiak dirutan aztertu eta zenbait erabaki-tresnaren bidez erabaki egokiena har daiteke. Dena den, kontuan izan behar da erabaki hau enpresaren tamainak eta biografiak hein handi batean mugatzen dutela. Alegia, enpresa handiak eta indartsuenak —edo garai batean indartsuenak zirenak— izaten dutela, batik bat, aukeratzeko gaitasuna.

TESTU OSAGARRIA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN INBERTITZEKO 10 ARRAZOI

1. Kokapen geografiko estrategikoa

Lisboa-ren eta Stockholm-en arteko komunikazio-ardatzaren lotura ezinbestekoa da. Euskal Herriari Bilboko portua dago: Espainiar Estatuko merkataritza-porturik garrantzitsuen eta Europan sakonerarik handiena duena (32 metro). Euskal Autonomia Erkidegoak hiru aireportu edukitzeaz gain, errepide eta autobideetako 4.320 km eraiki dira, baita Europako abiadura handiko trenbide-sarearekiko lotura zuzena ere.

2. Espainiar Estatuko industria-motorea

Euskal Herriari Espainiar Estatuko sektore estrategikoen produkzioaren zati handi bat kokatzen da, alegia: makina-erreminta, automozioaren industria laguntzailea, ekipo-ondasunak, informatika eta elektronika, etxetresna elektrikoa eta industria sidero-metalurgikoa. Horrez gain, Mondragón Corporación Cooperativa-ren (MCC) egoitza Euskal Herriari dago. Talde hori munduko industria-talde kooperatiborik handiena da. Iberdrola ere Euskal Herriari dago eta Europako bosgarren enpresa da energia elektrikoaren ekoizpenean.

3. Energia-azpiegitura zabala eta dibertsifikatua

Eraginkortasun- eta aurrezki-programei esker, Euskal Herriak %14 energia gutxiago erretzen du. Eskualde honetako beharizan energetikoen %36,7 asetzeko, petroliotik eratorritako produktuak erabiltzen dira. Azken urteotan, baliabide energetikoak dibertsifikatu dira gas naturalerantz batez ere. Izan ere, Euskal Herriak energia-mota horretako berezko hornitzaleturriak ditu. Halaber, banaketa-sare modernoa dugu biztanlearen %90aren eskura.

4. Informazio-autobideen sarea

Euskal Herriak azken belaunaldiko mikrouhin-sarea du. Era bertsuan, Euskal Herriari banda zabaleko zuntz optikozko linea-sarea dago; sare horren kanalizazioa 900 km-koa da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko biztanlearen %85 hornitzen du, baita unibertitateak eta industria-zentroak ere. Beste alde batetik, telekomunikazio zerbitzu berriak ari dira sartzen, alegia, kable bidezko telebista eta informazio-autobideen bidezko sarbidea, Internet barne.

5. Ikerkuntza eta Garapen Teknologikoaren aldeko apustua

Euskal Autonomia Erkidegoan Eusko Jaurlaritzak babestutako zortzi zentro teknologiko daude eta EITEn daude elkarturik, non 1.000 profesional baino gehiagok euskal industria-egiturari lotutako ikerketa-lanak egiten dituzten. Horrez gainera, ikerkuntzarako 24 zentro publiko edo pribatu daude. Zentrook Europako I+G programa askotan parte hartzen dute, alegia, Brite/Euram, Esprit, Euroeka eta abarretan. Aurrekoaz batera, 3 Elkartegi Teknologiko daude (Zamudio-Bizkaikoa, Penintsularen iparraldeko handiena da), non besteak beste, informatikaren, telekomunikazioen, elektronikaren, aeronautikaren eta ingurumenaren alorretako puntako enpresak kokatu diren.

6. Inbertsiorako pizgarriak eta bermeak

Eusko Jaurlaritzak jaulkitako herri-zorrak ondokoak jaso ditu: Moody's ameriko agentziaren **Aa2** kalifikazioa eta Standard and Poor's izenekoaren AA kalifikazioa. Euskal Autonomia Erkidegoko tributu- eta zerga-autonomiari esker —“Ekonomia Ituna” deiturikoak araututakoa—, Euskal Herriko erakundeek zerga pizgarriak hitzar ditzakete inbertsio-proiektuetarako. Pizgarri horien artean hauek azpimarra daitezke: Sozietateen gaineko Zerga %32,5 da (Espainiar Estatuan %35 da) eta %25era arteko fondo galdurako dirulaguntzak inbertsio berrietarako.

7. Europako finantza-zentro garrantzitsuenetarikoa

Euskal Herrian finantza-sektorea Espainiar Estatuan baino maila handiagoan finkatzen ari da. Euskal Herrian bertan dute egoitza Banco Bilbao Vizcaya-k (Espainiar Estatuko liderra, onurabolumenari dagokionez), Bilboko Burtzak (Espainiar Estatuko bigarren balio-burtsa, kontratazio-bolumenari dagokionez), Elkargik (Espainiar Estatuko lehenengo elkarrekiko berme-empresa) eta Luzarok (partaidetza-kredituak dituen sozietate bakarra). Halaber, Euskal Herrian Kapital Arriskuko baltzu batzuk daude, baita Kapital Garapeneko baltzu bat ere.

8. Giza baliabideak, euskal lehengai nagusia

Unibertsitate ikasketei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoak hiru unibertsitate ditu: Deustuko Unibertsitatea (Estatu osoko unibertsitaterik entzutetsuenetarikoa), Euskal Herriko Unibertsitatea eta Arrasateko Unibertsitatea (MCC Mondragón Corporación Corporativa taldeari eratzitakoa). Unibertsitate horietan 28 fakultate, goi-mailako 3 eskola tekniko eta 11 unibertsitate-eskola daude. 4.000 irakaslek ematen dizkiete eskolak 91.000 ikasle baino gehiagori. Euskal Autonomia Erkidegoan lanbide-hezkuntzako 172 zentro daude.

9. Milaka urteko kultura

Euskara gizateria osoaren hizkuntza-ondarea izateaz gainera, Europako hizkuntzarik zaharrena da. Gure hizkuntzaren jatorria kultura indoeuroparraren aurrekoa da. Euskara eta gaztelania Euskal Autonomia Erkidegoa bi hizkuntza ofizialak dira.

10. Naturagune paregabea

UNESCOk Urdaibaiko itsasadarra biosferako erreserba izendatu du. Espainiar Estatuko autonomia-erkidegoen inguruko Ekonomia Txostenaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak ingurumena babesteko duen azpiegitura estatu osoko onena da.

Iturria: SPRI (www.spri.es)

1.5.3. *Enpresa sortzeko eman behar diren urratsak*

Lehenik eta behin esan behar da ideia plan jakin baten inguruan garatu behar dela. Horretarako, oso aproposa izaten da ideia edo proiektua *negozio-plana* izenekoan gauzatea. Hainbat erakundek ematen dute horretarako laguntza.

Oso erabilgarriak dira esparru honetan, besteak beste, administrazioetako ekonomia eta enpresa sustatzeko ajentziek enpresa-planak egiteko ematen dituzten laguntza-programak eta laguntza-ereduak; besteak beste, azpimarragarriak dira Euskal Autonomia Erkidegoan *Business Innovation Centres* direlakoek (BIC laburduraz ezagutzen diren enpresa berrikuntza zentroak) eta SPRI erakundeak (Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua) garatu dituzten materialak eta ereduak¹.

Negozio-plana gauzatzeko, negozioaren arazo nagusiak, hau da, arazo estrategikoak, azaldu eta konpondu behar dira. Horretarako, era berean, negozioa gauzatzeko bideak eta konponbideak definitu behar dira. Jarraian, bideragarritasunari buruzko ohiko azterketa baten gidoia jasotzen da:

- Sustatzaileak identifikatzea
- Proiektuaren deskripzio laburra
- Merkatuaren azterketa (deskripzioa, lehiatzeko abantailak, salmenta-plana, banaketa-bideak, merkataritza-antolakuntza, etab.)
- Ekoizpen-plana (fabrikazio-prozesua, erosketa-plana, etab.)
- Análisi ekonomiko finantzarioa
- AMIA (DAFO) analisisa (ikus 11. gaia)
- Ondorioak

Idea edo proiektuaren bideragarritasuna zehaztu ondoren, beste zenbait urrats garrantzitsu egin beharko dira. Guztiak ere enpresa sortzeko azken tramiteekin amaituko dira.

1.5.4. *Enpresa sortzeko egin behar diren azken tramiteak*

Enpresa bat sortzeko lau motatako tramite legalak daude:

- a) Merkataritza-tramiteak.
- b) Tramite fiskalak.
- c) Tramite sozialak.
- d) Tramite munizipalak.

a) Merkataritza-tramiteak

Enpresa bat sortzeko egin behar den tramite nagusia eskritura delako agiria idaztea eta Merkataritza Erregistroan inskribatzea da. Une horretatik aurrera, enpresak izaera

1. Ikus, esaterako, BIC berrilan-en webgunea: www.bicberrilan.com; eta enpresa- edo negozio-plan berri baten bideragarritasuna aztertzeko eredu zehatz bat proposatzen duen “*Enpresa bat sortzeko hamar urrats*” argitalpena; eskuragarri Interneteko www.spri.es helbidean.

juridiko diferentziatua du, hau da, zuzenbidearen subjektu bilakatzen da. Alegia, enpresak edo administratzaileek ordenamenduak ezartzen dituen eskubideak eta betebeharrak dituzte.

Eskrituran enpresa-jarduera sortzen duten bazkideen artean hartutako akordioa jasotzen da. Notario baten aurrean erregistratu beharra dago. Enpresen eskriturretan datu hauek jaso behar dira:

- a) Enpresa sortzen duten pertsona juridikoen edo pertsona fisikoen izena, egoitza soziala edo helbidea.
- b) Sinatzen dutenen enpresa sortzeko nahia.
- c) Enpresa sortzeko jartzen den kapitala eta bazkide bakoitzak jartzen duen zenbatekoa.
- d) Sozietatearen administratzaileak zein diren, nazionalitatea eta helbidea.
- e) Sozietatearen estatutuak.

b) Tramite fiskalak.

Enpresa hainbat zergaren subjektu pasiboa da, eta sortzen denetik zamutzen zaizkio zerga horiek. Besteak beste, hauek dira nagusienak:

- Ondare Transmisioen gaineko Zerga. Enpresa bat osatzerakoan ordaintzen da (tasa jakin bat kapital sozialaren gainean sozietate bat denean, edo eskrituratu den zenbatekoaren gainean bestela).
- Balio Erantsiaren gaineko Zergan alta.
- Bestelako tramite batzuk: esaterako, enpresaren Identifikazio Fiskalaren Kodea (IFZ) eskatzea (gaztelaniaz CIF delakoa, *Código de Identificación Fiscal*).

c) Tramite sozialak

- Enpresa eta enpresak dituen lan-zentroak Gizarte Segurantzian inskribatzea.
- Langileen afiliazioa eta alta.
- Langileriaren matrikula-liburua eta bisita-liburua.
- Lan-zentroa ireki dela komunikatzea.

d) Tramite municipalak.

Udaletxean lan-zentroa irekitzeko lizentzia eskatzea eta lizentzia horri dagozkion tasak (lokalen azalerarekiko proportzionalak) ordaintzea.